



MEDITERRANEOA, PATERA BAT ETA ERRESISTENTZIARI AURPEGIA JARTZEN DIOTEN HIRU EMAKUME*



Nire herria maite dut baina ezin naiz hemen geratu

Apur bat aurreztu, mapa pare bat eta hegaldia begiratu eta listo! Erraza da mendebaldean jaio izan bazara, ihesaldia gatazka politiko batek bultzatuta ez bada, behintzat. Afrikatik bazatoz eta klase altuko familiakoa ez bazara, adibidez, aurreztea eta mapak begiratzeaz gain, guideman edo connection man bat bilatu behar duzu eta ausardiaz bete; bereziki, emakumea* bazara. Hala bada, oraindik ere arrazoi handiagoaz, zure gorputza eta bizitza arriskuan jarri behar dituzu eta. Benetan argi izan behar duzu hortaz, bidaia hori egin nahi duzula. Baina zaila izaten da askotan, nahi eta behar hitzen arteko aldea bereiztea...

Bere jatorrizko herrialdean indarkeria eta bazterketa sexista basatia pairatzea, dute komunean Saharaz Hegoaldeko emakume migrante gehienek eta horregatik

egiten dute ospa. Hauek ez daukate errefuxiatu estatusik baina politika eskas batek eragindako gatazketatik ari dira ihesi, sistemikoa den bortizkeriatik hain zuzen ere. Horrela, indarkeriaren dimentsio guztiek zeharkatzen dituzte (bortizkeria estrukturala, pobrezia egoerari lotua; indarkeria sinboliko-kulturala, emakumeen diskriminazio eta desbalarizazioa eta indarkeria zuzena, han naturalki ikusten baita gizonen emakumeak jipoitzea). Indarkeria mota guzti hauek, ez dira jatorrizko herrietan soilik emango, bidaian eta helmuga-herrialdeetara heltzean ere mantenduko baitira. Baina emakume hauen bizirauteko gaitasun eta teknikei esker idatz dezakegu hau gaurkoan, lerro hauek idazteko erabili dugun Bizirik nago¹ izeneko txostenean jasotzen den bezala. Dokumentuan, besteak beste, hiru emakumeren testigantzak irakurri ahal izan ditugu, zeinetan euren bizitzako parte bat biltzen den eta baita bidaia honetan erabili

dituzten estrategia batzuk ere, biktimizaziotik askoz haratago doan kontakizun eta analisi ezin interesgarriagoan.

Horrela hasi zen dena...

Beste asko bezala, bere aukera sexualarengatik zigortua eta jazarria zen Jeanne. Bere jatorrizko herrialdean, Kamerunen, lesbiana izateagatik bost urteko kartzela zigorra, lesbianismoa zuzentzeko bortxaketak, gaitzespen soziala edota harrikatzeak pairatzearen arriskua baitago.

Clarak ez zuen maite ez zuen gizon batekin ezkondu nahi Bazekielako horrek zer karga suposatuko liokeen: etxeko lanak eta lan sexualak egin behar izatea, askatasuna eta osasunerako, formazio profesionalerako eta bestelako oinarriko eskubideak galtzea... finean, norbaiten menpeko objektu bilakatzea.

Sarak ezin zuen bere aitak, ama

* Emakume kategoria erabiltzen jarraitzen dugu gure egungo errealitatean politikoki eragiteko oraindik baliagarria delakoan, nahiz eta sexu-genero sistemak markatzen duen binomioaz gaindi bizipen, ibilbide, ahalmen eta identitate anitzak ere bagaren (bollerak, trans...)



nola jipoitzen zuen ikustea jasan eta horri gehitu ohi zaizkion txirotasunak eragindako gabeziek bultzatu zuten bidaiari ekitera.

Ez-ohiko erreferenteak eta formazioa erresistitzeko

Hala ere, denek eduki dute erresistentziarako abiapuntu komuna euren jatorrizko herrialdeetan zentratzen dena: Inguruko pertsonaren baten eragina, generoaren arauekin apurtzen zutenak edota horren zurruna ez den heziketa.

Hezkuntza eta kulturari lotutako estrategia ere zinez baliagarri izan zaie. Izan ere, kasu askotan emakumeak oso gazte direla (hamar urte ingururekin) ezkontzera presionatuak edo behartuak izaten dira. Ikasten jarraitzeko aukera badute, ezkontza atzeratzeko estrategia bihurtzen da formazioa. Horrez gain, enplegu baterako sarbidea errazagoa edukiko dute edozein lekutan eta baita askeagoak izateko aukera ere.

Indarkeriatik ihesi, indarkeriaz jositako bidaia batean murgilduz

Migranteak, merkantzia bailiran dira garraiatuak. Oro har eskubideen falta nabaria bada, emakumeen kasuan dena da gordinagoa. Berezi izutzekoa da pairatu ohi duten indarkeria sexuala, bidaiari aurki dezaketen edozein gizonzkoren partetik: Beste migranteetatik hasita, mafietatik pasa eta mugetako militar eta poliziarenganaino iritsita. Gainera, bidaia hauetan osasun bermerik ez dagoenez, emakume asko hiltzen dira erditze edo abortuetan.

Erlijioa eta mutil-lagun faltsuak erresistitzeko

Ezinezkoa dirudien arren,

testuinguru honetan ere badira emakumeek garatzen dituzten biziraupen-estrategiak: Bidaia planifikatzea zaila bada ere, garrantzitsua da maparen bat aurrean, bidaia pentsatzea gatazkatsuak diren zonaldeak edo gudan daudenak ekidinez.

Beste aukera bat izaten mutil-lagun bidaiari, connection man edo guidemanen bat topatzea. Hau da, bidaiari zehar lagunduko dituen "gizonzkoren batekin joanda, besteek ez dizute minik ematen" azaltzen dute Jeanne eta Clarak. Tratu hauek diru truke egiten dira eta mutil-lagunaren kasuan, maiz, mesede sexual eta etxeko lanekin izaten dira ordainduak.

Askotan aipatzen duten beste estrategia bat da elementu erlijiosoen erabilera. Beloa janztea adibidez, bortxatua eta erasotua ez izateko modu eraginkorra izaten da musulmanen aurrean. Beste taktika bat, erritualena da: "Nik sukaldatutako jana jaten zuten hiru gizonen izugarritzko jipoia eman zidaten zor zidaten diru bat eskatu nielako eta denek ikusi baina inork ez zuen ezer esan, emakumea naizelako. Orduan, madarikazio bat botatzea erabaki nuen eta guztien aurrean, biluzik, esan nien: Nik gauza txarren bat egin badizuet, lurralde honetatik ateratzean ez

dut itsasoa zeharkatzea lortuko; kontrara, nik ez badut ezer txarrik egin eta eskatu dizuedan dirua eskatzea bidezkoa bada, zuek izango zarete itsasoak irentsiko dituenak". Clararen erabakia, kasu honetan, kontraboterea erabiltzea izan zen, Afrikan garrantzia handia daukan praktika erlijiosoa erabiliz.

Hau al zen paradisuua?

Emakume migrante zein errefuxiatuak lurralde berrira heltzen direnean prekarietatea, prostituzioa, klandestinitatea, ikusezintasuna, arrazismoa eta deportatuak edo kartzelaratuak izatearen arriskua dituzte beti atejoka.

Horrez gain, emakumeek diru-iturri berriak bilatzen dituzte lana biderkatuz edo miaketa-ekonomiak (lanan etengabeko bilaketak, enplegu batetik bestera jauzi eginez eta behin-behinekotasunezko lanaldi laburretan) praktikan jarritz. Hala, ez dute ez segurtasunik, ez





jarraikortasunik, ezta eskubide sozial eta ekonomikoak asetzeko bermerik ere.

Lan baldintza prekarioei, berriz, beste zailtasun bat gehitzen zaie: Kultura eta hizkuntza desberdina duen herrialde batera heltzeak, bakardadeak eta informazio faltak, zaurgarritasun egoeran jartzen ditu pertsona migranteak, lan mundura heltzea, bizileku bat bilatzea edota bere eskubideak ezagutzea bezalako oinarritzko ekintzak gauzatzea erabat murriztuz.

Zaurgarritasun horretaz baliatzen dira, besteak beste, pertsonen trata gauzatzen duten mafiak, ekonomia neoliberalaren barneko merkatu beltzaren atzekian: “Valentziara iristean, gizonak hau esan zidan: ‘Afrikan entzun duzun guztia gezurra da. Hemen ez duzu ez lanegi batean ez landan lan egingo. Kanean egingo duzu lan, beste neskek bezala’” diosku Sarak.

Osatzea, sareak eta aliantzak erresistitzeko

“Egun horretan gertatu zitzaidanaz duela gutxi hitz egin dezaket; lehen ezin nuelako hitz bat bera ere esan. Laguntza psikologikoari esker orain gai naiz” Kontatzen du Jeannek. Zentzu honetan, bititako guztia sendatzeko prozesuan denek azpimarratu dute laguntza psikologikoa, bititakoa taldean konpartitu ahal izatea eta babes humanoa eta horretarako dauden baliabide sozialak, hasieran horietara jotzearen beldur badira ere. “Hasieratik sartzen digute beldurra erakunde eta eragileekin, bertako jendea poliziarekin harremanetan zegoela eta fidagarria ez dela esanez”. Sara

Horrez gain, lana eta bestelako okupazioak aipatzen dituzte

lagungarritzat, sostengu ekonomikoa edo entretenimendua, harremanatzeko aukera eta hazteko aukera izateaz gain, burua zerbaitean okupatuta egoteko giltza dira. “Gehiegi ez pentsatu eta gauean ondo lo egin ahal izateko” adierazten du Jeannek.

Ongi etorri, Clara; ongi etorri Jeanne; ongi etorri, Sara... Ongi etorriak denak!

Bada, kontatzen dizkiguten errekurtsu guztietan, klabea den elementu bat, komuna dena bide hau egiten duten emakumeengan: erresilientzia. Hau da, zailtasunak gainditzeko eta traumak eta gertakari larriak bizi arren etorkizunean proiektatzen

Malkoei eutsi edo ordenagailuko teklatura inpotentziak jota apurtzeari amore ematearen erronka. Idaztea, kontatzea, partekatzea behar duena, egunen batean errealtate izateari utz diezaion. Baina emakume hauek, egoerarik gogorrenetan arazo dena aukera bihurtu eta erresistentzia estrategiatzat identifikatzeko eduki duten gaitasunak ematen digu aurrera jarraitzeko behar dugun indar eta itxaropena. Hala geratu zaizkigu, Clararen hitzak buruan iltzatuta: “Afrikako gertakari horietan pentsatzen dudanean, min horretan pentsatzen dudanean, gogorra da niretzat fisikoki eta mentalki. Gogorra da; baina, bizirik nago, ezta?”



Uztailaren 14-22 bitarte abiatu zen “Mugak zabalduz” karabana Melillaruntz, errefuxiatu eta migranteen egoera salatu eta ikusarazteko.

jarraitzeko garatzen dugun gaitasuna (Manciaux, Vanistendael, Lecomte eta Cyrulnik, 2001). Sara: “Une hartako zerbaite zela, aldi batekoa zela pentsatzeak aurrera egiten laguntzen zidan. Ez naiz hemen betiko geratuko”.

Gure arraza-pribiligioek askotan ikusten uzten ez diguten errealtate baten kontakizuna izan da hau.

Narrazio eta irakurketa hauek “Bizirik nago Saharaz hegoaldeko Afrikatik etorritako emakumeen erresistentzia-kartografiak” txostenetik ateratakoak dira, Itziar Gandarias Goikoetxeak idatziak. “Nigeria eta Kamerungo emakumeak elkarrizketatu ditugu eta denbora osoan eduki dugu zaintza oso presente, elkarrizketatuen nahi eta beharrak errespetatu ditugularik” lasaitzen gaitu Itziarrek idatzian.